

**IKUSPEGI
FEMINISTAK EKOIZPEN
ARTISTIKOETAN ETA
ARTEAREN TEORIETAN**

V. EDIZIOA

2016

Egilea

JUNE CRESPO

Titulua

**COSA Y TÚ. NIRE METODOLOGIAREN ETA
NIRE AZKEN LANEN INGURUKO OHAR
BATZUK**



**AZKUNA ZENTROA
ALHÓNDIGA BILBAO**

Hasteko, nire lan egiteko erari buruz hitz egingo dut, lana, orokorrean, nola ulertzen dudana azaltzeko. Gero, hautatu ditudan lan batzuk erakutsiko ditut, testuinguru honetarako egokitzat jo ditudanak. Lanak interpretatu gabe, saiatuko naiz lan batzuk sortzeko izan dudana abiapuntu eta motibazioari buruz hitz egiten, jarraibide batzuk ematen eta lanen inguruko ohar batzuk biltzen.

Bide batez, normalean publikoak ez diren material batzuk partekatuko ditut, baita prozesuan dauden lanen irudi batzuk eta, nahiz eta osagarriak izan, ezkutuan dauden edo eszenatik kanpo geratzen diren elementu batzuk. Lan egiten dudana bitartean daukadan esperientzia partekatu nahi dut, begirada azalera, ukipen-alderdietara, ehundurara eta lehen planora hurbildu, eta dimensio haptikoa nabarmendu. Hori egiteko, eta bukatutako piezen dokumentazioa osatzeko, ibilbide intimo eta hurbil bat egin nahi dut lanen inguruan, pieza batzuk pixka bat elkorrak diren susmoa egon daitekeelako.

Oro har, eskultura ikuspuntu zabal batetik lantzen dut, eta, horretarako, mihizadura artistikoaren eta *collage* teknikaren artean dauden objektuak sortzen ditut. Nire eskultura-jardunbideak bat egiten du arte grafikoetan dudana interesarekin eta irudiaren erreproduktzio instrumentalarekin. Erreproduktzio horretarako, argazkilaritzako hainbat teknika erabiltzen ditut, baina kamerarik gabe. Askotan, material grafikoak ere agertzen da nire lanetan, aldizkari batzuen bidez. Aldizkari horiek erreferentzia egiten diote herritar kulturari, baina, aldizkariak zerbait esan baino lehen, moztu egiten ditut, nahita. Garatzen ditudan lan egiteko bideetan, objektuak eta irudiak euren ekoizpen eta kontsumoaren sistemetatik ateratzen ditut, eta dituzten aukera asoziatiboak erabiltzen ditut. Une horretan, inprimatutako objektu eta materialen berezitasunak beste harreman batzuk ezagutuko ditu, baita arrarotasun-sentimenduak, eta eskuratzeko eta testuinguruan kokatzeko beste era batzuk ere.

Nire lan-metodologia aurkezteko, Lévi-Straussek idatzitako *La pensée sauvage* liburuko pasarte batzuk irakurriko ditut, *bricoleur* kontzeptuari buruzkoak, iruditzen baitzait zerikusi handia duela nire praktikarekin.

«Bricoler aditzaren antzinako esanahiari dagokionez, aditza lotuta dago pilota-jokoarekin, billarrarekin, ehizarekin eta ekitalzioarekin, betiere mugimendu erasotzailei erreferentzia egiteko: errebote egiten duen pilota, helburu jakinik gabe dabilen txakurra, oztopo bat saihesteko lineatik desbideratzen den zaldia...

Bricoleur-a alde aurreko planik egin gabe jokatzeko duena da, teknologiaren erabileratik urrun dauden baliabideak eta prozedurak erabiliz. Ez du lehengairik erabiltzen. Landutako materialak erabiltzen ditu, baita beste lan batzuen zatiak, hondarrak edo puskak.

Horiek horrela, bricoleur batek erabiltzen duen baliabide multzoa ezin da definitu proiektu batetik abiatuta; proiektuaren erabilgarritasunak bakarrik definituko du. Beste modu batez esateko, edo bricoleur baten hizkuntza erabiltzeko, elementuak biltzen eta gordetzen dira “zerbait egiteko balio izango dutelako”.

(...) haren tresnen unibertsoa itxita dago, eta jokoaren arau nagusia 'dagoenarekin' moldatzea da (...). Objektu heteroklito horiek guztiak dira haren altxorra, eta artistak hainbat galdera egingo dizkie, bakoitzak zer esan nahi duen ikertu ahal izateko. Bricoleur batek, gauzekin hitz egiteaz gain, gauzen bidez ere hitz egiten du, eta objektu mugatu batzuen artean hautatutako baliabideak erabiltzen ditu egilearen izaera eta bizitza aurkezteko. Nahiz eta bere proiektua osorik ez lortu, bricoleur batek bere buruaren zerbait eskaintzen du beti.¹

Nire lan plastikoa keinu afektibo edo asoziatibo batetik sortzen da, eta biltzen ditudan materialak dira horretarako tresnak. Material horiek bildu, tolestu edo pilatu egiten ditut. Gauzen kokapena edo jarrera aldatzen dut, eta aktibatu egiten ditut, elkartze eta antolaketa igarokorrak osatzeko. Gauzak elkarrekin bat etortzea nahi dut. Ezezaguna egiten zaidan beste ikuspuntu batetik ikusi nahi ditut, arrarotasun-sentimendu bat sortzeko helburuarekin. Helburu argirik gabe, zerbait egiten diet hautatutako edo aurkitutako objektu horiei, ohikoak ez diren erreakzioen bila. Gero, adi egon behar naiz, sortzen diren erantzun horiek, nire interesekoak direnak, hautemateko. Nire

¹ El Pensamiento Salvaje. 1962 Claude Lévi-Strauss / Fondo de Cultura Económica, Madrid, 1987 / 35.-42. or.



ustez, nire lana ez da adierazpen-tresna bat. Agian, zenbait eremutan gertatzen zaidana lantzeko eta gainditzeko modu bat da, hau da, eremu pertsonalean, politikoa, estetikoan... Eta, azken batean, hori guztia teknikoki ebatzi beharra daukat.

Abiapuntua aurkitzeko, nahi dudana eta sumatzen dudana zerbait formalizazioa aurkitu behar dut. Askotan, hasteko unea zerbait galdutzat jotzen dudanean ailegaten da, edo errespetua galtzen diodanean, hutsegite baten edo istripu baten hondarrak biltzen edo ordenatzen ditudanean, lantegiko atetik ateratzen ari naizela zeharka begiratzen dudanean, etab. Laburbiltzeko, espero ez dudana zerbait agertzen denean, eta hori ikusteko gai naizenean.

Joan-etorriko jolas bat da. Funtsezkoa da objektu bakoitzak une bakoitzean eskatzen didanari arretaz begiratzea, objektuak duen indarrari erreparatzea eta negoziazio moduko bat sortzea OBJEKTUaren eta SUBJEKTUaren artean. Hala ere, erabakiak hartzen laguntzen didan barruko gida bat ere badut, batzuetan objektu batek bide bat baino gehiago izan ditzakeelako. Erabakiek ez dute zerikusi handirik diskurtso-dimentsioarekin edo zentzu bakar bat emateko helburuarekin. Helburu nagusia da erabakiak hartzea entzuten dudanaren arabera, edo objektuaren eta bion arteko harremanak sortutako jarraibideak kontuan hartuta. Esanahia agertu behar bada, geroago agertuko da. Hurbiltasunaren ondorioz edo ikusle bakoitzak izango duen elkartzearen ondorioz sortuko da. Emaizta erabaki kontzienteen multzo bat da, baina baita baldintza, istripu, kalkulu-errore, ideia eragile batetik izandako desbideratze, susmo edo ziurtasunen multzoa ere.

Saitzen naiz esku artean daukadana lantzen, objektuak autonomia edo presentzia propioa izan arte. Helburua da objektuak funtsezko zerbait itzultzea niri. Gai izan behar naiz pieza bat osatzen duen zati edo elementu bakoitza ikusteko. Piezak niri begiratu behar dit azkenean.

Orain, azkenaldian egindako lan batzuk aurkeztuko ditut, 2014. eta 2015. urteetan egin nituen bi eskulturatetik hasita. Bi lan horiek egiteko, emakumeentzako 60 eta 70eko hamarkadetako aldizkari batzuk erabili ditut. Agerian dago bi eskulturetan pultsio formal eraikitzailea eta ikonoklasta dagoela. Materiala zeharkatuz, ebakiz edo pilatuz, paperezko euskarri hau lantzen dut. Aipatu behar da euskarri honek, edukiaren eta publizitatearen bidez, emakumea zapaltzeko eta menderatzeko ereduak zabaltzen eta indartzen dituela. Era berean, nortasunak eraikitzeko hainbat mekanismo erakusten ditu, eta emakumeen rolen inguruko arauak eta aukerak sortzeko eta islatzeko bide bat da.

Daytime Regime (Elaine) (2014) lanari buruz hitz egiteko, Miren Jaiok idatzitako pasarte bat erabiliko dut, *El Estado Mental* aldizkarian argitaratua (6. zenbakian, 2015ean). Eskulturaren egitura formala testuarekin eta orriaren maketazioarekin alderatzen badugu, Miren Jaiok, alde batetik, *Daytime Regime (Elaine)* lanerako gerturatze formal batzuk egin ditu eta, oin-oharretan, diskurtso paralelo bat garatu du, Delphine Seyrig zuzendari eta antzezleari gorazarre egiteko. Testuan, Mirenen hitzetan, nire eskultura *Delphine Seyrigi egindako gorazarrea* da.

«Lana deskribatzeko bosgarren ahalegina:

Eskultura estatuen gisakoa da. Artistak Nova aldizkaritik atera ditu bi estatuak, 1968ko azaroko zenbakitik, hain zuzen ere: plano amerikarrean dagoen zuriz jantzitako emakumea eta busto iluna. Aldizkari hori britainiarra da, eta bere garaian honela definitu zuten: “emakume berriarentzako aldizkari berri bat”. Nola egin du artistak Delphine Seyrigi egindako gorazarrea aldizkari batetik ateratako bi argazkirekin? Bada, artistak Nova aldizkariko orriak zabaldu ditu plano horizontalean eta plano bertikalean. (...) plano amerikarreko irudiak eta busto ilunak ihes egiten dute orriko itxuratetik, bolumena hartzen dute eta estatua bilakatzen dira.

Estatuak egiteko artearen helburua da estatua, ikusleen aurrean, zerbait berria izatea beti. Nova aldizkariak ere horrela ikusten zituen bere burua eta bere emakumeak. Eta estatua denboraz kanpoko bada, askoz hobeto, hau da, zaharra baina, aldi berean, berria. Hori egiaztatuzko, “emakume intelektualentzat, politikoki erradikala eta edertasunez diseinatua” den argitalpen honetako tximeletaren hegala zabaltzean zer gertatzen den ikustea besterik ez da behar. Hegalak zabaldu ondoren, Diana ehiztaria, Venus uretatik ateratzen, Egiptoko esfingeak eta Nefertitiren bustoa ikusiko ditugu; estatua



klasikoen ikuspegi berri honetan, irudiak ez dira paperezko irudi bidimentsional eta lurrunkorrak, baizik eta tokian bertan bolumenta hartzen duten forma solidoak dira.

Lerro hauek irakurtzen ari denak ere esandakoa egiaztatu ahal izango du esku artean daukan couché paperarekin: ireki aldizkaria, zabaldu tximeleta baten hegalek balira bezala, eta inguratu. Irakurleak, orriak zabaltzean, sortzen diren ustekabeko elkartzeko eta eskultura-konfigurazioak mugimenduan ikusi ahal izango ditu, baita garaiko erretratua ere.

Lana deskribatzeko seigarren ahalegina:

Eskultura 'eskultura hautsia' kategorian sailkatu daiteke. Ebaki batek eragiten du haustura: altzairuzko xaflak Nova aldizkari orriak zeharkatzen ditu, eta bertan dauden aurpegiak eta gorputzak ebakitzen eta mutilatzen ditu. Eskulturaren, 'ebaki' aditzak bi esanahi hartzen ditu: batetik, espazioa zatitzen du; bestetik, irudiak hondatzen ditu. Delphine Seyrigi egindako gorazarrea laneko bi hausturen konbinazioaren emaitza egitura hau da, eta esan daiteke egiturak bi pultsio formal dituela: eraikitzailea eta ikonoklasta. Kontua da zaila egiten dela zehaztea non hasten den bata eta non amaitzen den bestea: produkzio formaleko edozein ekintzak aurreko formen suntsipena dakar.²

Daytime Regime (Brigitte) (2015) zutabeari dagokionez, hasiera batean nire gorputzaren araberako eskala batekin lan egiteko asmoa neukan, baita jarrera bertikalaren erkaketa batekin ere: zutik jarri, zutik egon eta neure burua berretsi. Gilbert Duranden arabera (*Estructuras Antropológicas del Imaginario*), *Daytime Regime* ereduak erreferentzia egiten die eskema bertikalari eta gizakiaren zutikako jarrerari. Aldaera baztertzaila eta antitetikoetan antolatzen diren sinboloen eskema bat da, eta polarizazio-indar handiko irudi edo sinbolo axiomatikoak ditu.

Beste alde batetik, pieza osatzen duten aldizkarietako dagokienez, lehen planoan aurpegi bat zuten azalak nahi nituen. Aurpegi horiek ia azal guztia hartzen zuten, zinemako ikono femeninoen lehen planoek egiten zuten bezala. Laura Mulveyren arabera,³ zinemako *close-up* teknika edo lehen planoak kontsumoa fetitxe bihurtzeko gaitasunarekin lotura handia du, eta edertasun femeninoa ikuskizun eta ikur erotiko gisa kondentsatzen duen irudi bat bihurtzen da. Aurpegi eta gorputz femenino zatituak egitura narratiboa eta ekintzaren jarria eteten du, kontenplazio eta erotizatutako plazer bisualeko une batean.

“Zer da Vogue? Zer da moda? (...) Etorriko diren gauzen irudia, forma eta helmuga

Aurpegia, azala, luxuaren aurpegia (...) Batez ere, aurpegia, itxura, kosmetikoak

“Zer da Vogue?”

Aurpegi zaharraren gainean dagoen aurpegi berria da, jarrera da, itxura da, nartzisismoaren azala,

beloen azpian ezkututzen den sexua da, baita sokak eta uhalak ere,

Zure lehengo izatea da, berriz izan nahi ez duzun gizaki hori, izate berria bihurtzen ari dena, izan nahi duzun hori, aurpegi

zahar eta txarraren azpian dagoen aurpegi berria, aurpegi sendoak estalitako aurpegi ahula da.”⁴

² Miren Jaio, *Varios acercamientos formales a una escultura de June Crespo* / *El Estado Mental* 6. zk., 2015 / 100.-105. or.

³ Laura Mulvey, *Fetishism and curiosity*, 3. kapitulua “close-ups and commodities” / *British Film Institute* 1996 / Laura Mulvey Placer Visual eta Cine Narrativo.

⁴ *Martha Rosler reads Vogue* (1982) laneko pasarteak / *Electronic Arts Intermix*



***Cheek to Cheek* (2015)**

Cheek to Cheek eskultura multzoa *Cosa y tú* erakusketaren parte da (Carreras Múgica galeria, Bilbo, 2015eko ekaina). Lan hau osatzen duten elementu gainjarriak zementuzkoak dira eta, osatzeko, hainbat maniki-molde erabili dira. Gorputzeko jarrerak adierazten dituzte. Erreferentzia egiten diete jarreraren proiektzio-ardatzei eta gorputz biziak duten berezko grabitazio eta esekidurari.

Eskulturak egin nituenean material grafikoa material gisa zuzen ez erabiltzen saiatu nintzen, fisikoagoak diren alderdietan fokuratu nahi nuelako. Hala ere, irudia beste modu batean agertu zen. Bereziki, objektuaren eta ikuslearen arteko erresonantzia fisikoa sortzea axola zitzaidan, baita eskultura exentuen gaitasun implizitua jokoan jartzea ere. Piezak inguratzean, objektuarekin harremanetan jartzeko era berri batzuk aktibatzen dira. Hasteko, interpretazio figuratibo eta narratibo bat sortzen da. Publizitate-irudi sexualizatuarekin lotzen nuen, baita eskulturaren historiarekin loturiko iruditeria batekin ere (kuroso estatuetatik Brancusiren musuraino, edo Sarah Lucas eta horrelako beste erreferente garaikide batzuetaraino). Piezak inguratzeak piezaren interpretazioa zailtzen zuen eta ikuspuntu bakoitzak, aurrekoekin alderatuta, arrarotasun-sentimendu bat sortzen zuen. Horixe interesatzen zitzaidan.

«Irudi» batek hedatzen duen konplexutasuna islatzen du eskulturaren aurpegi bakoitzak. American Apparel eta halako publizitate-marken hizkuntza neureganatu nahi nuen, nolabait. Ezagutzen ditugun formak interpretatzeko edo hautemateko era moztu nahi nuen, formekin nahasteko, beren presentzia fisikoa eta materiala kontuan hartuta. Lehenengo interpretazio azalekoaz gain, nire ustez, objektu baten ikuspuntu batzuek lotura intimoa zuten gorputzeko barneko irudiekin, hala nola zimurrekin, artikulazioekin eta gorputzeko hainbat ehunekin.

***Chance Album n°1* (2016)**

Chance Album izeneko *assemblage* artistikoen multzoan, nire asmoa zen bi plano harremanetan jarriz eraikitzea: batetik, plano alegiazkoa eta simbolikoa, nire amets batzuetatik ateratako ohar batzuekin batera, eta, bestetik, mundu material eta zentzumenezkoa. Aurkitutako objektu batzuek baliatuz (aldizkarietako edo liburuetako azalak eta irudiak, adibidez), paisaia mental edo zentzumenezko bati erreferentzia egiten zioten materialak hautatu nituen. Elementu horien helburua amesten ditudan eszenak ordezkatzeko edo horiekin lotutako sentipen edo oroipenak esnatzea da. Nire ustez, mihiztaduraren edo *collage* prozesuaren funtzionamendua inkontzientearen funtzionamendua bezalakoa da. Hor, pentsamenduak, oroipenak, pertzepzio fisikoak, ehundurak eta gainazalak maila berean daude, eta ez dago denborazko banaketarik. Barneko elkarrizketa hori proposatzen ditudan konbinazio eta objektuen arteko harremanei esker osatzen eta luzatzen da. Ezaugarri fisiko eta formalen egitura-harremanak eta kontrasteak efektuekin, sentsazio fisikoekin edo esanahi arrazionala bilatzen ez duen pentsamendu mota batekin lotzen ditut. Pentsamendu hori, logikoa baino gehiago, poetikoa da.

Chance Album (Queen) lanean, aldizkariko eduki batzuk eszenatik kanpo geratu dira, baina, hala ere, hor segitzen dute nolabait. *Avant-Garde* aldizkariaren zenbaki honetan heroina kontsumitzen ari diren gazte batzuen inguruko erreportaje bat dago. Odolez maketatutako irudi batean, lehen planoan dagoen emakume gazte batek besoa luzatzen du orrian diagonalean, eta haginekin eusten dio besoaren inguruan lotuta daukan oihalari, orratza azalean sartzen den bitartean. Irudian tentsioa dago oihalean, besotik haginekara; beso luzatuan, eta orratzean, azala zulatuz. Presioa, tentsioa eta distentsioa, eta fluido bat odol-fluidoan sartzen. Nahiz eta irudi honi begiratzeak sentsazio fisiko gogor bat eragin, erabaki nuen ezkutatzea eta, nolabait, ziztadaren ideia pieza osatzen duten beste elementuetara eramatea.

